



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

San Gabriel HLHI

Ikastetxearen kodea:

014402

Data:

2023(e)ko martxoaren 1(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

San Gabriel HLHI Bizkaiko Trapagaran herrian kokatuta dago. Orokorki D ereduko lerro bakarreko eskola publikoa da, HH2 mailatik LH6 mailara, baina gertatzen da batzuetan talde batzuk bikoiztu egiten direla.

Aurten 180 ikasle ditugu, hoietatik %50a transportatua da eta maila sozio-ekonomiko baxuagoa duten herriko periferiako azuoetatik datorrena. Bekadun familien kopuruari dagokionez %70 baten bueltan mugitzen gara.

Familien baliabide teknologikoei dagokionez arrunta da smartphone bezalako gailuen jabetza eta erabilera. Aspektu akademikoekin lotutako erabilpenak behera egiten du ordea eta ordenagailua eta datu konexio finkoak ez dira horren ohikoak gure ikaslegoaren artean.

Gure eskolak aukera berdintasuna eta arrakala digitala gainditze aldera ekipoak mailegatu izan ditu, horrelako egoerak ikaslegoaren garapenean arazo bat izan ez daitezen.

Horrez gain eta sare eta gailuen erabilera desegokiekin kontzientziatuta gaude eta urtero bultzatzen dira horren inguruko kontzientziazio jardunaldiak.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxea teknologikoki hornitua dago.

Ekipoei dagokienez berriztatze falta antzematen da irakaslearen tresneriaren artean baina ikasleen ekipoei dagokienez, kalitate handikoak ez badira ere, nahiko ekipo berriak daudela esan dezakegu.

Ikasleen zenbakiei dagokionez 80 bat eramangarri ditugu erabilgarri 2. eta 3. ziklorako batez ere.

Irakaslegoaren mahai gaineko ordenagailu eta arbel digitalei dagokienez eskolako ikasgela gehienak ditugu ekipatuak, gehienak zaharkituak edo zaharkitze bidean badaude ere. Irakaslegoaren eramangarriei dagokienez LHko tutore bakoitzak bere eramangarria dauka.

Konektibitatea eskola publikoaren ohiko estandarretan mugitzen da eta plataformei dagokienez bi dira erabilieneak: Googleek eskeinitako zerbitzuak (mail, drive, calendar...) eta horren pean antolatutako eskolaren barne antolakuntza eta departamentuak bultzatutako moodle sareak.

Zerbitzu digitalen mantenuari dagokienez aniztasuna da nagusi. 3 dira gure hornitzaile nagusiak: batetik domeinua kudeatzen digun infobilbo enpresa, guebbs webguneko hostingaren kudeatzailea eta departamenduaren CAU mantentze zerbitzua.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Proiektuak bere egoeraren inguruko diagnostikoa egiten eta datozen urteetarako estrategia digitala diseinatzen lagunduko dio eskolari.

Aurretik estrategia digital minimo baten diseinua erdietsia bazegoen ere, Sare Hezkuntza eta IKT heldutasun eredu ertainak medio, estrategia hau zaharkitua zegoen.

Parte hartzeari dagokionez, 2022-2023 ikasturtean proiektu honen derrigortasunaren arabera parte hartzea izan dugu, naiz eta gogotsu egin dugun.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Hauek izango dira lehentasunak eta aurrera eramateko lerro kronologikoa:

- 1- Lan taldea sortu.
- 2- Aurreko urtean egindako SELFIEa aztertu.
- 3- AMIA egin, aztertu eta ondorio batzuetara heldu.
- 4- IPDaren bidez lortu beharreko helburuak eta horiek erdiesteko ekintzak zehaztu.
- 5- Egindakoa ebaluatu.
- 6- Proiektua idatzi, aurkeztu, onartu eta entregatu.

Planifikazio hau aurrera eramango duen taldea IKT batzordeak osatuko du eta talde eragile hau ondorengo langileek osatuko dute:

Ivan Villalba (LH tutorea eta IKT arduraduna)

Nagore Calvo (LH tutorea)

Nekane Martinez (LH tutorea eta IKT arduraduna)

Vanesa Aira (HH tutorea)

Patxi Arteagabeitia (Ikasketa burua)

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Garatzen ari garen proiektu digitalak ekarpen zuzena egiten dio bai Urteko Planari zein Hezkuntza Proiektuari.

Gure urteko planean zehaztuta dugun 3. helburuarekiko ekarpena nabaria da eta argi geratu dadin hemen jasotzen dugu helburua:

3. "Eskolako estrategia digitala eguneratzea, maisu-maistren formakuntza ahalbideratuz, ikasleen minimo digitalak eguneratuz eta webgunearen herraminta digital kontzeptuan sakonduz; eskola mailan konpetentzia digitalaren garapena bermatzeko."

Hezkuntza planari dagokionez gure eskolako printzipio, ezaugarri eta balioen inguruan 4. eta 5. puntuak erdiesteko zehaztutako helburuarekiko lotura nabarmena da ere.

Printzipioak:

4. "Partehartzailea, familien ,ikasleen eta ikastetxeko antolaketako eta funtzionamenduko profesionalen arteko lankidetzaz sustatzen duena"

5. "Ikaslea bera hezkuntzaren protagonista izatea, berdinen arteko lankidetzan oinarrituta."

Aurreko printzipio hauek erdiesteko Hezkuntza Proiektuan jasotako amankomuneko helburua :

"Teknologia berrien (IKT) erabilera areagotzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen parteaktiboaren zerbitzura ipinita."



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

2021-2022 urtean SELFIE egin genuen. Galdetegi honetatik hausnarketa desberdinak atera ditugu baina horiekin hasi baino lehen errealitatea nola dagoen jakitea beharrezkoa da. Gure eskolan, urtero, Lehen hezkuntzaren plantilla asko aldatu egiten da eta honek idea eta irakasleen ezaugarriak oso desberdinak izatera eraman gaitzake. Horregatik, SELFIE emaitzak aldakorrak izango liratekeela uste dugu urtero egingo bagenu.

Emaitzen hausnarketa egin genuenean 3,6 baino txikiagoak ziren emaitzak txartzat eman genituen eta handiagoak zirenak ontzat eman genituen. Horrela hauek dira gure ondorioak:

- Eskolak duen kategoriarik hoberena "infraestructura y equipos" da. Honen barruan interneteko sarbidea eta gailu digitalak daudela dira hoberen puntuatu direnak eta aldiz, datuen babesan izan da puntu gutxien lortu duena, 3,5rekin. Egia da eskolak apustu handia egin duela azken urteetan ikasleak chromebook edo mini portatil bat izateko aukeraren alde.
- Eskolak duen kategoriarik txarrenak "Prácticas de evaluación" eta "Desarrollo profesional continuo" dira. Bigarren kategorian, desarrollo profesional continuo, dauden 3 itemak nota baxua dute. Eskolak ez du izan proiektu digital egoki bat orain arte eta honek klaustroaren garapena bultzatzeko arazoak ekarri ditu. Lehenengo kategorian, prácticas de evaluación, item guztiak nota baxua dute ere. Kasu hau bestearekin lotuta dagoela uste dugu, izan ere, proiektu digital egoki bat izatea lagunduko luke ebaluazioa ere desberdina izaten. Hala ere, honetan norbere garapena ikusten dela ere uste dugu. Bi hauetan uste dugu irakaslearen aldaketa handiak, urtero emaitza desberdinak ekarri ahal izango lituzkeela.
- "competencias digitales del alumnado" kategorian, puntuazioa 3,6 inguruan dago baina egia da ikasleek beraien kompetenziari buruzko pertzepzioa ona daukatelako dela, aldiz, irakasle eta zuzendaritza taldeko puntuaketa ikusita item guztiak 3,6ren azpitik daude. Honetan, etapa osoan minimo batzuk zehaztuta egotea oso garrantzitsua dela uste dugu eta horrela progresiboki kompetentzia hobetzen joango zen, aurreko urteetan minimoen dokumentu bat eginda dagoen arren berrikusi eta zehaztu beharra dago.
- "pedagogía: implementación en el aula" eta "pedagogía: apoyos y recursos" kategoriatan, puntuaketa 3,6 ingurukoa da. Hauetan ikus dezakegu berrikuntza pixka bat handiagoa dela gela barruan baina F6 itemaren arabera, ez dira disziplinen arteko proiektuak egiten. Gainera, ohituta gaude interneten errekurtso desberdinak bilatzen baina guk sortu behar ditugunean arazo gehiago egoten dira, batetik askotan ez dakigulako nola sortu eta bestetik, denbora falta handia dugulako.
- "Liderazgo" kategorian ikus dezakegu eskolak estrategia digital bat zuela eta saiatzen zela aplikatzen baina lehen esan dugun bezala eta beste kategorien puntuak ikusita agian ez zen estrategia egokiena edo ez da ondo komunikatu, urtez-urte plantillan dagoen errotazio handia dela eta.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

estrategia digitalik eza

Ikasleek ez dute ikasten interneten modu seguru eta arduratsuan jokatzeko

Irakasleek ikasgelan teknologia erabiltzea irakaskuntzan

Irakasleen etengabeko prestakuntzarik eza.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Ikastetxeari dagokionez interesik azaltzen ez duten familiak, komunikazio sistemak erabiltzeko asmorik ez dutenek edo ezin dutenek.

Ez dago datuak babesteko sistemarik

Ikasle batzuek ez dute baliabide digitalik etxean

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Ikastetxeak egitura digital egokia du irakaskuntza-, ikaskuntza- eta prestakuntza-testuinguruak erabiltzeko, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat.

Irakasleek online baliabide digitalak bilatu eta sortzen dituzte, eta jarduerak ikasleen beharren arabera esleitzen dituzte

Irakasleek teknologia digitalak erabiltzen dituzte ikastetxeari buruzko komunikaziorako, bai klaustroan, bai familiekin eta beste estamentu batzuekin.

Gure ikastetxean, ikasleek modu seguru eta arduratsuan ikasten dute sartzen, besteak errespetatuz.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Interneterako sarbidea ematen da

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Ikastetxeak egitura digital bat du, non baliabide digitalak bilatu eta sortzeko, irakaslearen formakuntza eta ikas-irakaskuntza bultzatuz, erraztuz, aldi berean, interneteko erabilera arduratsua eta segurua, klaustroarekin, familiarekin eta beste komunikazioekin komunikazioaren bidez.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Nahiz eta, ikastetxeak internerako sarrera errazten duen, ez du asistentzia teknikorik ezta estrategia digitalik ikasgelan erabiltzeko, irakasleek ez baitute prestakuntzarik, eta horren ondorioz, ikasleek ez dute ikasten sarean modu seguru eta arduratsuan jokatzeko.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Aplikazio berriak kontrolatzen dituzten irakasleak formakuntza saioak emango dizkiete besteei eguneratuta egoteko. Horretarako koordinatuta egoteko saio batzuk zehaztuko dira IUP-en formakuntza hau bermatzeko.

Gurasoentzako formakuntzak antolatuko dira ez dakitenentzat eta gainera jakinaraziko zaie oso garrantzitsua dela teknologiaren bidez harremanean egotea eguneroko gauza delako.

Zentroak estruktura digital zabala eta ona duenez, behar duten familiei eskeiniko zaie ordenagailu bat edo behar duten gailua.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Ez daudenez datuen babeserako sistema egokienak ezarrita eta naiz eta formakuntza puntualak egin ikasleek ez dutenez ikasten segurtasunez lan egiten interneten, segurtasunarekin eta datuen babesarekin lotutako informazioa helaraziko zaie irakasle eta ikasleei.

Sortzen eta bilatzen diren errekurtsio digitalak ez dira solik etxerako bidaltzekoak, gelan erabiltzen direla bermatu behar dugu ikasleen konpetentzia digitala hobetzen dagoela frogatzeko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Digitalizazio batzordearen bidez IPDa martxan jartzea eta urtero ebaluatzea eta behar diren gauzak moldatzea.

Deskriptorea	Epea
LG 3.1 Inplementazio-planaren inguruan elkar aditze eta konpromiso bat dago	2027/01/01

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.1 A1 Ikastetxeak irakasleek parte hartzeko egitura bat zehaztu du, bere estrategia digitala garatu	Bai/Ez	Bai
LG 3.2 A2 Komunitate osoak onartu du	Bai/Ez	Bai
LG 3.3 A3 Oinarrizko dokumentazioan sartu da.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Klaustroari IPDa aurkeztu	IPD AURKEZPENA	Batzorde digitala	ekaina	Egina
IPDa OMR-k onartu	deialdia Aurkezpena	Zuzendaritza taldea	2023/06/30	Egina
Kronograma egin	Excel edo antzekoak	Batzorde digitala	2023/06/30	Egina
ikasturte hasieran bakoitzean, IPD-ren helburuak azaldu	Aurkezpena	Batzorde digitala	23-09-30 eta iraila	Detektatua
urteko planean sartu	Urteko plana dokumentua	Zuzendaritza taldea	2023/09/30	Detektatua
Ikasturte hasieran IPD-a martxan jartzeko egingo diren ekintzak zehaztu	Kronograma ekintzen azalpen dokumentua	Batzorde digitala	2023/11/30	Prozesuan (%40-59)
Urtero ebaluatu eta behar dena hobetu	IPD-a Batzordeko aktak	Batzorde digitala	urtero ekainean	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, maila bakoitzean, zer programa eta aplikazio erabiliko diren, nola eta zertarako zehaztea.

Deskriptorea	Epea
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2024/12/31

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A5 Ikastetxeak adostu / egokitu / garatu du ikasleek KDn aurrera egiteko erabili beharreko aplikazioak	Bai/Ez	Bai
II 1.1 A6 Ikastetxeak adostu / egokitu / garatu du ikasleek KDn aurrera egiteko nola erabili maila bakoitzeko	Bai/Ez	Bai
II 1.1 A7 Ikasleak mailaren arabera programa eta aplikazioak ezagutu edo/eta maneiatzen ditu	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Zein aplikazio eta programak erabiltzen diren jakiteko formularioa	Google inprimakia	Batzorde digitala	2023/12/31	Detektatua
Formularioan agertzen diren emaitzak analizatu	Excel emaitzekin	Batzorde digitala	2024/02/28	Detektatua
Analizatutako emaitzekin eta beste proposamenekin, aplikazio eta baliabide batzuk aukeratu		Batzorde digitala	2024/02/28	Detektatua
Baliabide bakoitza non eta nola erabiliko den zehaztu		Batzorde digitala Klaustroa	2024/05/31	Detektatua
Klaustroan azaldu maila bakoitzean erabiliko den aplikazioa, nola erabiliko den eta zertarako	Azalpen dokumentuak Bideotutorialak	Batzorde digitala	2024/09/30	Detektatua
Aplikazio horiek erabiltzeko formakuntzak egin	Azalpen dokumentuak Bideotutorialak	Batzorde digitala	2024/10/31	Detektatua
Aplikazio horiek dagokion mailan erabili	Aplikazioa Aplikazioko bideotutorialak	Irakasleak	2024/12/31	Detektatua
Erabileraren ebaluazioa egin urtero	Batzorde aktak Klaustro aktak	Batzorde digitala	urtero ekainean	Detektatua

Helburua

Irakasle eta ikasleen online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsuen garapena sustatzea

Deskriptorea	Epea
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua	2026/05/31

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A2 Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate	Bai/Ez	Bai
II 1.2 A3 Unitate didaktikoak diseinatu/egokitu ditu, datuak babesteari, identitate digitalari, zibersegur	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
----------	-------------	-------------	------	--------

Baliabide digitalak modu egokian erabiltzeko protokoloa egin	Bilatutako informazioa Formakuntza saioak	Batzorde digitala	2026/03/31	Detektatua
Protokoloa klaustroari azaldu	Aurkezpenak Bideoak	Batzorde digitala	2026/04/30	Detektatua
Protokoloa ikasleei azaldu	Aurkezpenak Bideoak	Tutoreak	2026/04/30	Detektatua
Familientzako formakuntzak antolatu erabilera txarrak dakartzan ondorioak azaltzeko	Aurkezpenak Bideoak	Formakuntza emango duen taldea (kanpoko ala barrukoa)	2026/05/31	Detektatua
Kartelak eta baliabideak egin klaseetan jartzeko	Ikasitako informazioa	Tutoreak	2026/04/30	Detektatua
Pantallas amigas formakuntza natolatu urtero	kanpoko formakuntza	kanpoko taldea	urtero urrian	Detektatua
Kurtso hasierako gidan sartu gailu digitalenerabileraren garrantzia eta eskolara ekartzeko debekua	kurtso hasierako gida	zuzendaritza taldea	urtero irailean	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua		
IPDan dauden helburuak betetzeko irakasleentzat formakuntzak antolatzea		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.1 Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa	2026/09/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.1 A1 ikastetxean sartu berri diren irakasleentzako tresna eta aplikazio normalizatuen urteko oinar	Bai/Ez	Bai
GP 1.1 A2 Irakasleen Harrera Planaren barruan, estrategia digitalarekin, baliabide digitalen erabilerare	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
kronograma bat egin formakuntzekin	Formakuntzen datak Formakuntza posibleak	Zuzendaritza taldea	2026/05/31	Detektatua
formakuntza presentzialak antolatu		Zuzendaritza taldea Batzorde digitala	2026/06/30	Detektatua
Bideoak prestatu formakuntza presentzian egindakoa azalduz eta aplikazioak azalduz	Aplikazioak Bideotutorialak Grabatutako bideoak	Batzorde digitala	2026/09/30	Detektatua
Irakasleen Harrera planean, formakuntza hauek ezarri	Harrera plana	Zuzendaritza taldea Batzorde digitala	2026/06/30	Detektatua
Urtero beharrezkoak diren formakuntzen programa laburra	IPD formakuntza kronograma	Zuzendaritza taldea Batzorde digitala	urtero iraila- urr	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
Ebaluaziorako tresna digitalak erabiltzea, ebaluazio sumatiboa, autoebaluazioa eta koebaluazioa bermatuz		
Deskriptorea	Epea	
EJ 1.2 Ebaluazio batutzailea dibertsifikatzen da	2026/01/31	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.2 A1 Ikasgaien % ... tan ikasleek lineako probako teknologiak erabiltzen dituzte, berehalako itzulerei	Ehunekotan	%80
EJ 1.2 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren tek	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleek ebaluazioa egiteko erabiltzen dituzten baliabideak ezagutzeko formulario egin	Google inprimakia	Batzorde digitala	2025/02/28	Detektatua
Emitzen arabera eta beste proposamenak kontuan hartuz, zein aplikazio edo baliabideak erabiliko diren aukeratu	Excel edo antzekoa emaitzekin	Batzorde digitala	2025/05/31	Detektatua
Aukeratutako baliabideak azaltzeko formakuntzak egin	Formakuntzak Bideoak Dokumentuak	Batzorde digitala Zuzendaritza taldea	2025/09/30	Detektatua
Autoebaluazioa eta koebaluazioa egiteko erabiliko diren aplikazioak aukeratu	Google inprimakia	Batzorde digitala	2025/10/31	Detektatua
Autoebaluazioa eta koebaluazioa egiteko erabiliko diren aplikazioak azaltzeko formakuntza	Bideotutorialak Dokumentuak	Batzorde digitala	2025/12/31	Detektatua
programazioetan aplikazioen erabilera, autoebaluazioa eta koebaluazioa txertatu	Programazioak	Irakasleak	2025/12/31	Detektatua
Ebaluaziorako aplikazioak erabili	Dokumentuak Aplikazioen erabilera Bideotutorialak Programazioak	Batzorde digitala	2026/01/31	Detektatua
Urtero aplikazioen erabilera ebaluatu	Batzorde aktak Klaustro aktak	Batzorde digitala	urtero ekainean	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Maila bakoitzeko minimoak zehaztea, ikasleen kompetentzia digitala garatzeko

Deskriptorea	Epea	
EC 2.6 Ikasleen gaitasun digitala curriculum osoan garatzen da	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.6 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenare	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleen irteera profil digitala zehaztu		Batzorde digitala	2024/01/31	Hasita (%1-19)
Irteera profilan oinarrituz minimoak ezarri mailaka	Irteera profila	Batzorde digitala	2024/04/30	Hasita (%1-19)
Minimoak eginda daudenean, aplikazioen dokumentuarekin bat egin minimoak eta aplikazioak erlazionatuz	Minimoen eta aplikazioen dokumentuak	Batzorde digitala	2024/05/31	Detektatua
Irakasleen Harrera planean txertatu	Harrera plana	Zuzendaritza taldea	2024/06/30	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Ikastetxeko komunikazio kanalak mantentzea eta hobetzea, garrantzitsua den informazioa zabaltzeko

Deskriptorea	Epea
EN 2.1 Komunikazio-estrategia esplizitua dago ezarrita	2027/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 2.1 A1 Ikastetxeak ikastetxeko komunikazio-plan bat garatu du, informazio- eta komunikazio-prozesuak	Bai/Ez	Bai
Irakasleentzako "koaderno digitala" egin da	Bai/Ez	Bai
eskolako webgunea eguneratuta dago	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Koaderno digitalean sartuko diren gauzak aukeratu	Google inprimakia	Batzorde digitala	2024/10/31	Detektatua
koaderno digitaleko sitea egin	google sites beharrezko dokumentuak	Batzorde digitala	2024/12/31	Detektatua
koaderno digitaleko sitea erabiltzeko formakuntza antolatu	Bideotutorialak Dokumentuak	Batzorde digitala	2025/02/28	Detektatua
irakasleak koaderno digitala erabili	Sitea Bideotutorialak	Irakasleak	2025/03/31	Detektatua
koaderno digitalaren mantenua eta hobekuntzak egin	Batzorde aktak Klaustro aktak	Batzorde digitala	urtero ekainean	Detektatua
Emailen estruktura berria sortu langileentzat eta familientzat		IKT arduraduna Zuzendaritza taldea	2023/09/30	Detektatua
Emailen estruktura berriaren erabilera azaldu klaustroari		IKT arduraduna	2023/10/15	Detektatua
Emailen estruktura erabili		Irakasleak famiak	2023/11/15	Detektatua
webgunea eguneratu	Wordpress Berriak	Batzorde digitala	hamabostean	Detektatua
komunikazio plana ezarri eta idatzita utzi		Batzorde digitala Zuzendaritza taldea	2025/01/31	Detektatua
Emailen estruktura berria azaldu familiei		Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua

Eskolako ekipamendu fisikoen erabilera ona izatea eta arautzea

Deskriptorea

AZ 2.1 Erabilera arduratsurako arauak daude ezarrita

Epea

2026/05/31

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.1 A1 Ikastetxeak protokolo bat du, datuen babesari buruzko legearen arabera pribatutasuna eta d	Bai/Ez	Bai
AZ 2.1 A2 Ikastetxeak prestakuntza-saioak (tutoretza-saioak) eta ikasleentzako materialak zehaztu ditu	Ehunekotan	%80
Ekipamendu fisikoen erabilera ona bermatzen duen protokoloa egin da	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ekipamendu fisikoa erabiltzeko protokoloa egin	Dokumentuak	Batzorde digitala Zuzendaritza taldea	2026/02/28	Detektatua
Protokoloak klaustroari azaldu	protokolo dokumentua	Batzorde digitala	2026/03/31	Detektatua
Protokoloak ikasleei azaldu	Protokolo dokumentua	Irakasleak	2026/03/31	Detektatua
Protokoloari buruzko kartelak eta baliabideak sortu klasetan jartzeko	aplikazioak Protokoloa	Batzorde digitala	2026/05/31	Detektatua

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Digitalizazio batzordearen bidez IPDa martxan jartzea eta urtero ebaluatzea eta behar diren gauzak moldatzea.	urtero ekainean	kronogramaren betetze maila	Batzorde digitala	Prozesuan (%40-59)	
II	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, maila bakoitzean, zer programa eta aplikazio erabiliko diren, nola eta zertarako zehaztea.	urtero ekainean	Klaustroarekin elkarbanatutako errubrikak	Batzorde digitala	Detektatua	
II	Irakasle eta ikasleen online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsuaren garapena sustatzea	2026ko ekainean	Klaustroarekin elkarbanatutako errubrikak	Batzorde digitala	Detektatua	
GP	IPDan dauden helburuak betetzeko irakasleentzat formakuntzak antolatzea	2026ko ekainean	krpnogramaren betetze maila	Batzorde digitala zuzendaritza taldea	Detektatua	
EJ	Ebaluaziorako tresna digitalak erabiltzea, ebaluazio sumatiboa, autoebaluazioa eta koebaluazioa bermatuz	2026 eta 2027ko ekainean	Klaustroarekin elkarbanatutako errubrikak eta programazioen behaketa	Batzorde digitala	Detektatua	
EC	Maila bakoitzeko minimoak zehaztea, ikasleen kompetentzia digitala garatzeko	2024ko ekainean	Klaustroarekin elkarbanatutako errubrikak	Batzorde digitala zuzendaritza taldea	Hasita (%1-19)	
EN	Ikastetxeko komunikazio kanalak mantentzea eta hobetzea, garrantzitsua den informazioa zabaltzeko	25, 26 eta 27 urteko ekainean	Klaustroarekin elkarbanatutako errubrikak	Batzorde digitala	Detektatua	
AZ	Eskolako ekipamendu fisikoen erabilera ona izatea eta arautzea	2026ko ekainean	Klaustroarekin elkarbanatutako errubrikak eta egindako kartelak eta horrelakoak	Batzorde digitala	Detektatua	
IB						